


pla! pla! pla!



Gorbeia inguruko landetan egun osoan ardizain eginda etxerantza etozan neguko iluntze baten aita-seme artzainak, artalde eta ardi-txakurra lagun. Hotz handia egiten eban; mendi tontorrek lainopean egozan eta zerua goibel.\* Mutila, hagin-kirrizka\*eta hotz-ikara\*baten. Aita, edurra egingo ete dauan bildurrez. Aitak semeari:

– Laino ilun horreek edurra ete jakarrek?<sup>dakarre</sup>  
– Ez dakit, aita.

Semeak aitari:

– Helduko ete gara gautu orduko etxera?<sup>dit</sup>  
– Ez jakiak, seme.

Horixe esanaz batera

DZIST - DZAST! oinazuaren bristadea;\* BURRRUN! gero, trumoiaren dunbotsa.\*

– Gōzak bizkor!<sup>goazan</sup> –dinotse alkarri.

Eta bizkor joiazan. Baina edurra bizkorrago heldu: miri-miri lehenengotan, mara-mara gero.

Landak, zuritu egin ziran; ardiak edur-bolak irudien.

Aita, estu; semea, larri. Ardiak, beeka; txakurra, ausika.

– Etxera ezin gōzak heldu! Beheko kobara joango gōzak!<sup>gara</sup>

Eta kobarantza abiatu ziran, eta ozta-ozta\*heldu.

Sarrerea estu eukan kobeak; baina barrua zabala.

– Aterpean gāgōzak hemen! Sua biztuko joāgu, eta berotu.<sup>dogu</sup>

Eta zorrotik eguerdiko ondakinak\*atara eta jan gin ebezan.<sup>egizu</sup>

Kanpoan, edurra eta iluntasuna; edur matazak\*goitik behera.

– Logura naz, aita –dinotso burua kulunka\*semeak.

– Egin lo, seme –esanda,

zorrotik kandela bedeinkatu bat atara, biztu, eta ataka-atakan, haize-ezkutu baten, jarri eban aitak.

– Zertarako hori, aita?

Baina aitak, entzungor\*eginik, ez eutsan erantzun.

Eta barriro itandu orduko loak hartu eban semea.

Aita ere logura zan, baina etzun baino lehen

kandela negarak batu eta kandleari gaineratu eutsazan,

Gero, sarrerara urreraturik.

– Ene, aterri\*jagok eta izarratu\*...  
baina antzigarra\*dok –esan eban berekautan.  
Eta lotara joan zan. Eta lo-korronka egoala...  
PLA! PLA! PLA! zarraparrak itxartu eban.  
Zutundu zan, eta ezer ez inon. Barriro lokartu zan.  
PLA! PLA! PLA! bigarrenez, eta lehengo zarraparrea baino handiagoa.  
– Zer izan da hori, aita?<sup>jaki</sup>  
– Ez jakiat! Baina egik egin lo, neu nōk berton-eta!<sup>egizu</sup>  
Hori esanaz batera  
PLA! PLA! PLA! hirugarrenez.  
– Ene!! Begiratu, aita!  
Ikaragarrizko txoritzar bi ziran piko-luze eta baltzak, higuinarrak;\*koban sartu guran, eta ezin...  
– Alde txarreko\*hegaziak dozak horreek, seme,  
baina ez estutu; kandela bedeinkatuak galerazoko\*jeutsek.<sup>deutse</sup>  
– Eta kandelea erretakoan, zer, aita?  
– Ermitako argi-kanpaiak uxatuko\*jōzak eguna urratzean.<sup>dauz</sup>  
– Bai, gero?  
Amorrotuta ebizan kanpokoak barruan sartu guran; larri eta estu barrukoak kanpokoak uxatu guran.  
– Ze ordu da, aita?  
Ez ekien ze ordu zan. Ez ekien kandleak iraungo\*eutsenik...  
Ha gau luzea! Ha gau larria!  
Halango baten  
DANG! DANG! DANG! ...beheko ermitako kanpai-hotsa!  
Eta tximistea baizen bizkor DZIIIST! DZIIIST! eginik,  
aldendu\*egin ziran txori biak,  
artaldea eta artzainak baketan itzirik.



\* zerua goibel = nublado, escampado  
\* hagin-kirizka = rechinar de dientes  
\* ots-ikara = tiritar de frío  
\* briskadea = traslumbamiento

\* dunbotsa = estruendo  
\* ozta-ozta = a duras penas  
\* ondakina = residuos, restos

\* edur-matasa = copo de nieve  
\* kulunka = cabeceando  
\* entzungor egin = hacerse el distraído

\* aterri = escampado  
\* izarratu = estrellado  
\* antzigarra = helada

\* higuinarrak = repugnante  
\* alde txarreko = de mala suerte  
\* galerazo = impedir

\* uxatu = espantar  
\* iraun = durar  
\* aldendu = alejarse